

**BERDINTASUNERAKO EMAKUNDE SARIA  
PREMIO EMAKUNDE A LA IGUALDAD**

2015-03-25 Artium Museoa - Museo Artium 25-03-2015

*Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari*

Legebiltzar buru anderea eta Emakunderen zuzendari nagusia, zuek aipatuz hemen zaudeten herri agintari eta herri ordezkari, eta emakume guztiak baita gizonezkoak ere aipatu egiten ditut. Nolanahi ere, jaun andreok, egun on guztioi eta eskerrak emanez hasi nahi dut.

Eskerrak Emakunderi lan topaketa hau antolatzeagatik eta Alda Faciori bere ekarpenagatik. Eskerrak Ana, Izaskun eta Emakunderen ibilbidean konpromisoa erakutsi duzuen guztioi.

Eskerrak mugimendu feministari, emetasunaren mugimenduari. Zuen bultzadari esker lortu da berdintasuna gizarteratzea eta agenda politikoan sartzea. Zuei esker lortu da Administrazioek berdintasunerako politikak egitea.

Eskerrak beraz eta zorionak Fórum Feminista María de Maezturi; Josune, Mónica, eta zuen kide guztiei. Aitzindariak zarete eta zuen bultzadari esker ere sortu zen Emakunde bera eta.

Hoy el Fórum Feminista María de Maeztu recibe el Premio Emakunde a la Igualdad.

Quiero comenzar reconociendo que la creación de Emakunde debe mucho, precisamente, al empuje y compromiso del que participó este Fórum que hoy representan aquí Josune, Mónica y el resto de integrantes del Fórum que hoy se encuentran aquí.

Lo que probablemente en aquellos años os parecía un sueño, es ahora una realidad. Pero el sueño sigue en construcción, sigue ampliándose.

Hoy os reconocemos con este Premio y nos alegra saber que seguís soñando, porque la igualdad tiene que seguir creciendo hasta convertirse en una realidad social plena.

Jaurlaritzak berdintasunarekin konpromisoa hartu du. Benetako konpromisoa, ekintzetan ikusten dena.

Hamar urte betetzen dira Berdintasunerako Legea onartu zenetik, eta etengabeko aurrera pausoak eman dira hari esker eta jende askoren lanari esker.

Hamar urte hauetan indartu egin dira gure herrian berdintasunaren alde lan egiten duten egiturak. Lankidetzak sareak sortu dira erakundeen artean. Esparru publiko zein pribatuan berdintasunaren aldeko lana bultzatu egin da. Indarkeriaren biktima diren emakumeen babeserako eta ongizaterako lanabes gehiago sortu egin dira.

Gobernuek giza eskubideak defendatzeko obligazioa dute, eta hauen barne daude emakumeen giza eskubideak eta berdintasunean bizitzeko dugun eskubidea. Oraindik asko geratzen da egiteko, baina esan dezakegu Euskadi gaur justuagoa dela eta berdintasunetik gertuago dagoela.

Hace diez años aprobamos la Ley de igualdad. Hemos vivido diez años de avance continuo, de sensibilización, de iniciativas, de evaluaciones. Diez años de compromiso sin retorno.

Hoy contamos con más estructuras de trabajo, más apoyo profesional. Contamos con más medios y con lo que es más importante: contamos con más determinación para seguir avanzando. Más personas creen más en la igualdad en nuestra sociedad.

Hemos aprobado el sexto Plan de Igualdad. Creo en los planes, en los planes institucionales, en los planes interinstitucionales, en los planes institución-sociedad. Son necesarios para trabajar en común; para dibujar el futuro que queremos. Son necesarios para hacer y, también, para evaluar, corregir y mejorar. Son necesarios para que nadie olvide que tenemos que seguir extendiendo la cultura de la igualdad. Creo en la igualdad y por eso creo en el Plan de Igualdad como herramienta de trabajo compartido.

Planaren ardatzak jarraituz, Jaurlaritzak bere politika guztietan kontutan hartzen du berdintasuna.

Plan honek Jaurlaritzako Sail guztietan du eragina, zeharkakotasuna da Plan honen ezaugarria. Izan ere, berdintasunaren alde lan egiteak hori bera eskatzen du, berdintasunaren printzipioak alor guztietan txertatzea: ekonomia eta lan munduan, osasunean, hezkuntzan, justizian, segurtasunean, hirigintzan.

Termino con un reconocimiento a los movimientos sociales en general y al Fórum Feminista María de Maeztu en particular.

Nos sugerís, nos proponéis, nos empujáís, nos ayudáis. Nos recordáis lo que queda por hacer cuando contamos lo que hemos hecho. Nos recordáis nuestras obligaciones como gobierno. Hemos avanzado de la mano y queremos seguir haciéndolo.

Jornadas, leyes, planes, premios, todo es necesario para seguir avanzando en lo que nos une: el compromiso con la igualdad.

Fórum Feminista María de Maeztu, eskerrik asko eta zorionak.

Eusko Jaurlaritza adi dago mugimendu sozialei, zuen eskakizunei eta proposamenei. Behar beharrezkoak dira mugimendu sozialak nahiak eta eskaerak ondo ezagutzeko, ametsak ulertzeko eta, hori guztia kontuan hartuz, erabakiak hartzeko.

Zorionak merezimendu osoz Emakunde Saria jaso duzuenoi eta eskerrik asko denoi.